

**ADIERAZPENA,
AMINATOU HAIDARRI ELKARTASUNA
ADIERAZTEKOA,
DONOSTIAKO UDALEKO GIZA
ESKUBIDEEN BATZORDE
BEREZIARENA**

**DECLARACIÓN DE APOYO A
AMINATOU HAIDAR
DE LA COMISIÓN ESPECIAL DE
DERECHOS HUMANOS
DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-
SAN SEBASTIÁN**

Aminatou Haidar, Mendebaldeko Saharan giza eskubideen aldezkari ezaguna, Marokoko Gobernuak egotzi zuen joan den azaroaren 13an. Eskubide zibil nahiz demokratikoen eta nazioarteko legediaren urratze nabaria da. Izan ere, Marokoko Gobernuak lurralde horretan sartzea galarazi dio, nahiz eta Aminatou Haidarrek dokumentuak behar bezala eta pasaporte indarrean dituen, argumentu faltsu hau erabiliz: «Aminatou Haidarrek ez du Sahararen marokotartasuna onartzen, eta arriskua dakarkio Marokori». Pasaporte kendu eta Lanzarote uhartera egotzi izana —Espainiako Gobernuak konplize izanik—, Aminatou Haidarren borondatearen kontra doa, behin eta berriz adierazi baitu Mendebaldeko Saharako lurraldean bizi nahi duela, familiarekin, seme-alabekin, han izan baitu beti bizilekua.

Marokoko Gobernuaren ekintza hori, Mendebaldeko Saharan saharar biztanle zibilen giza eskubideen kontrako errepresioan gertatzen ari den gorakada arriskutsuaren barruan izan da. Errepresioaren gorakada horren adierazgarri ditugu Muhammad VI.a erregeak oraintsu egindako hitzaldia, giza eskubideen aldezkari diren zazpi saharar Casablancan espetxeratu eta jurisdikzio militarra aplikatu izana, Mendebaldeko Saharan nazioarteko behatzailerik izatea debekatu izana, saharar aktibistei masiboki pasaporte eta dokumentuak kenduz mugimendu askatasuna galaraztea, saharar biztanle zibilei egindako torturak eta terrorea gehitzea, lurraldearen subiranotasuna erabakitzeko autodeterminazio erreferenduma egitea ez onartzea (erreferenduma egitea agindu baitute behin eta berriz Nazio Batuen Erakundearen ebazpenek), eta abar. Hala, bada, Marokoko Gobernuak nazioarteko legediaren kontra ari da, eta giza eskubideen errepresioaren gorakada ikaragarria egin du Mendebaldeko Saharan legez kanpo okupatuak dituen lurraldeetan.

La expulsión de Aminatou Haidar, la conocida defensora de los Derechos Humanos en el Sahara Occidental, por el Gobierno de Marruecos el pasado día 13 de noviembre constituye una flagrante vulneración de los derechos civiles y democráticos y de la legalidad internacional, al negarle la entrada en el territorio cuando tiene sus documentos en regla y el pasaporte en vigor, con el falso argumento de que "Aminatou Haidar no reconoce la marroquinidad del Sáhara y constituye un peligro para Marruecos". La retirada del pasaporte y su expulsión a la isla de Lanzarote, con la complicidad del Gobierno de España, va en contra de la voluntad expresada reiteradamente por la propia Aminatou Haidar de vivir en el territorio del Sahara Occidental, con su familia, con sus hijos, donde siempre ha tenido su residencia.

Esta acción del Gobierno marroquí se enmarca en una peligrosa escalada en la represión de los Derechos Humanos de la población civil saharauí en el Sahara Occidental expresada en hechos como el discurso reciente del Rey Mohamed VI, el encarcelamiento de siete defensores saharauíes de Derechos Humanos en Casablanca y la aplicación de la jurisdicción militar, la prohibición de la presencia de observadores internacionales en el Sahara Occidental, la retirada masiva de pasaportes y documentos a los activistas saharauíes que impiden su libertad de movimiento, el incremento de las torturas y el terror a la población civil saharauí, la negativa a la celebración de un Referéndum de Autodeterminación para determinar la soberanía del territorio, tal y como ha reiterado las resoluciones del Consejo de Seguridad de la O.N.U., etc., lo que coloca al Gobierno marroquí en contra de la legalidad internacional y en una escalada explosiva de represión de los Derechos Humanos en los territorios ocupados ilegalmente del Sahara Occidental.

Egoera hori salatzearen eta lurralde hartara itzultzea galdatzearen, Aminatou Haidarrek gose greba hasi zuen, Lanzaroteko aireportuan, joan den azaroaren 14an. Aminatou Haidarren bizia arrisku larrian da, eta ezin dira aurrez jakin zer eragin ekarriko dizkion, osasunez ez baitabil batere ondo, Marokoko kartzeletan egin dizkieten tortura ugariak direla kausa. Tortura horiek gaixotasun larriak eta osasun ahula ekarri dizkiote.

Hori guztia kontuan hartuta, eta egoera larria denez, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzorde Bereziak ondorengo erabakiak onartu ditu:

ERABAKIAK

1. Aminatou Haidarrek adierazi dituen eskakizun bidezkoen alde gaudela eta bat egiten dugula adieraztea. Beharrezko akzioak egitea, Marokoko Gobernuak baimena eman dezan, berehala, Aminatou Haidar Mendebaldeko Saharako lurraldean sartzeko eta familiarekin eta seme-alabekin elkartzeko, nazioarteko legedia urratuko duten edo Aminatou Haidarren borondatearen kontrakoak izango diren baldintzarik ezarri gabe. Horretan guztian, Nazio Batuen Erakundeak 1966ko abenduaren 16an onartutako Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna bete beharko da.
2. Era berean, Espainiako Gobernuari hertsatuki eskatzen zaio egin ditzala egin daitezkeen kudeaketa guztiak, giza eskubideen aldezkari Aminatou Haidarrek orain duen egoerari irtenbidea aurkitzearen, Lanzaroten baitago, gose greban, «pasaportetik gabe eta espainiar Estatuan izaten jarraitzeko borondaterik gabe».
3. Gure kezka adieraztea, Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan giza eskubideak gero eta areago urratzen dituela eta. Beharrezkoa da errepresio egoera hori amaiaztea, saharar preso politiko guztiak askatzea, eta marokoar agintariek konfiskatutako pasaporte eta dokumentuak berehala itzultzea.

Para denunciar esta situación y exigir su regreso al territorio, Aminatou Haidar ha iniciado una Huelga de Hambre en el Aeropuerto de Lanzarote desde el pasado 14 de noviembre, con gravísimo peligro de su vida y con secuelas imprevisibles, dada su maltrecha salud por las múltiples torturas recibidas en las cárceles de Marruecos, que le ha ocasionado enfermedades graves y un frágil estado de salud.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, y ante la gravedad de la situación esta Comisión Especial de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián adopta los siguientes

ACUERDOS

1. Manifestar el apoyo y la solidaridad con las justas reivindicaciones expresadas por Aminatou Haidar. Ejercer las acciones necesarias para que el Gobierno de Marruecos autorice, con carácter inmediato, su acceso al territorio del Sahara Occidental y poder reunirse con su familia y con sus hijos, sin la imposición de requisitos que vulneran la legalidad internacional o que vayan contra la voluntad de Aminatou Haidar. Todo ello en cumplimiento del Pacto Internacional sobre los Derechos Civiles y Políticos, aprobados por la O.N.U. el 16 de diciembre de 1966.
2. Del mismo modo, se insta al Gobierno de España a que realice todas las gestiones posibles encaminadas a encontrar una solución a la situación actual de la defensora de los Derechos Humanos Aminatou Haidar, que se encuentra en Lanzarote, en huelga de hambre, "sin pasaporte ni voluntad de permanecer en el Estado Español".
3. Expresar la preocupación por la creciente vulneración de los Derechos Humanos en el Sahara Occidental por parte del Gobierno de Marruecos. Se hace necesario terminar con esta situación de represión, poner en libertad a todos los presos políticos saharauis y la inmediata devolución de los pasaportes y documentos requisados por las autoridades marroquíes.

- | | |
|---|--|
| <p>4. Berresea beharrezkoa dela Mendebaldeko Saharan autodeterminazio erreferenduma egitea, Nazio Batuen Erakundeak erabaki bezala, horixe baita eskualde hartako gatazka luzeari irtenbide iraunkorra, baketsua eta egonkorra emateko modu bakarra.</p> <p>5. Erabaki hauek ondorengo hauei zuzentzea:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Espainiako Errege Etxeari.2. Espainiako Gobernu
Lehendakaritzari.3. Espainiako Atzerri Arazoetako
Ministerioari.4. Nazio Batuen Erakundearen Madrilgo bulegoari.5. Europar Batasuneko
Lehendakaritzari.6. Marokoren Espainiako enbaxadari. | <p>4. Reafirmar la necesidad de la celebración del Referéndum de Autodeterminación en el Sahara Occidental, acordado por la O.N.U., como única forma de resolver este largo conflicto de manera duradera, pacífica y estable para la Región.</p> <p>5. Dirigir los presentes acuerdos a:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Casa Real española.2. Presidencia del Gobierno de España.3. Ministerio español de Asuntos Exteriores.4. Oficina de la O.N.U. en Madrid.5. Presidencia de la Unión Europea.6. Embajada de Marruecos en España. |
|---|--|

Donostia, 2009ko abenduaren 1a

En San Sebastián, a 1 de Diciembre de 2009

Odón Elorza
Alkatea / Alcalde

Maravillas Dafauce
PSE-EE

José Luis Arrue
PP

Xabier Ezeizabarrena
PNV-EAJ

Ainhoa Beola
Aralar-Alternatiba

Ricardo Burutarán
EA-Mistoa/EA-Mixto